GTX BANDA LEHIA KETA

BANDA LEHIAKETA >>>>>> 7. EDIZIOA

25

OINARRIAK

1. PARTADIDEAK

Lehiaketan Euskal Herriko taldeek edota jatorri euskal herritarra duten taldeek parte hartu ahal izanen dute. Aipatu musika taldeek ezin izango dutela diskoetxeren batekin indarrean dagoen kontraturik izan. Autofinantzatutako lan diskografikoak dituzten musika taldeak ez dira kanpo gelditukо. Talde bakoitza izen bakarrarekin aurkez daiteke, nahiz eta taldekideak, maila pertsonalean, beste talderen baten partaide izan daitezkeen. Aurkezten dituzten abestietan euskerak duen presentzia positiboki baloratuko da.

2. IZEN EMATEA

Lehiaketaren izen ematea oinarri hauen aurkezpenarekin batera irekitzen da eta 2025eko Maiatzaren 2an, 15:00ean bukatuko da. Izen ematea *www.gasteizkotxosnak.eus* helbidean egin beharko da. Izena ematen duten taldeek minimo 3 abesti *(horietatik bat euskaraz izan beharko da)* eta maximo 5 abesti *(horietatik bi euskaraz izan beharko dira)*, taldekideen datuak eta izen ematea egiten duen pertsonaren datuak biltzen dituen inprimakia beteko dute. Inprimakia *www.gasteizkotxosnak.eus* webgunean topatu ahalko da.

3. KANPORAKETA FASEA

Antolakuntzak jasotako materialaren bitartez gauzatuko du kanporaketa fasea. Maiatzaren 2an jasotako material guztia aztertu ondoren, 8 talde sailkatuak izango dira. Maiatzaren 5etik 15era *www.gasteizkotxosnak.eus* webgunean 8 sailkatuen artean ikuslegoaren bozkak jasota finalerako lehen taldea aterako da. Beste hiru taldeak GASTEIZKO TXOSNAK hautatuko ditu. Finalera heltzen diren 4 taldeetatik bat, ikuslegoak hautatutakoa izango da. Beste hiru taldeak GASTEIZKO TXOSNAk erabakiko ditu. Gutxienez bat arabarra eta beste bat emakumearen presentzia duena.

4. FINALA

Finalerako sailkatzen diren 4 taldeek, antolakuntzak Jimmy Jazz Gasteiz aretoan Maiatzaren 22an programatuko duen kontzertu batean, zuzenean, joko dute. Emanaldi bakoitzaren iraupena gutxienez 15 minutukoa eta gehienez 20koa izango da, iraupen hau gainditzen bada emanaldia gelditukо da. Epaimahaia musikari batez, ekoizle batez eta GASTEIZKO TXOSNAKeko antolakuntzako kide batek osatuko dute.

5. SARIAK

Aurten, lehiaketan bi sari mota egongo dira, GTX saria eta GAZTE saria. GTX sariak 500 euroko jasoko ditu ordea, GAZTE sariak 200 euro. Irabazten duten taldeek Gasteizko txosnetan aritzeko aukera edukiko dute.

6. LEGEA

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko plagiorik, aurkeztutako abestien letra zein musikaren gaineko egile-eskubiderik, ezta legearen beste edozein urraketa ere. Eta, bertsioen kasuan, epaimahaiaren balorazioa baxuagoa izanen da.

7. EKOIZPEN PROPIOAK

Musika talde bakoitzak, gutxienez, bere ekoizpeneko 3 abesti aurkeztu beharko ditu eta emanaldiaren gainontzeko denbora bertsioekin osatu ahal izanen du.

8. ESKUBIDEAK

Parte hartzen duten musika taldeek, euren irudi eskubideak eta baimena emango dute abestiak edota kontzertuak komunikabide desberdinetan zabaltzeko, betiere lehiaketaren garapenaren barruan eta inoiz ez antolaketaren aldetik erabilera komertziala egiteko.

9. OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeak, musika talde parte-hartzaile guztien aldetik oinarrien onarpena dakar, baita antolaketa batzordearen eta epaimahaiaren erabakien onarpena, zein hauen kontrako erreklamazio guztiei uko egitea ere. Parte hartzeak, aldi berean, ekitaldiaren ezaugarriak, bere egitura eta antolaketaren onarpena ere badakar.

IZEN EMATEA » eta infomazio eguneratua!

GASTEIZKO TXOSNAK · Karinka PRODUKZIOAK · Jimmy jazz gasteiz